

<https://www.berria.eus/paperekoa/1873/023/001/2019-12-27/zirrikitu-bat-memoriaren-izurren-arteana.htm>

Zirrikitu bat memoriaren izurren artean

Veronica Domingoren grabatuak biltzen dituen 'Hamahiru arrosak' erakusketa jarri dute Arteztu galerian. 1939. urteko gertaera bat du hizpide



Veronica Domingo artista, *Hamahiru arrosak* erakusketan, Donostian. GOTZON ARANBURU / FOKU
2019ko abenduak 27

[0](#)

Madril. 1939. urtea. Abuztuak 5. Espainiako memoria historikoaren egutegian kolore gorri marrazturiko egun horietako bat da: 36ko gerraren ondoren, erregimen frankistak hamahiru emakume hil zituen, fusilatuta. 18 eta 29 urte bitartean zituzten, eta horietatik erdiak JSU Espainiako Gazteria Sozialista Bateratuak erakundeko kideak ziren.

Oihartzun handia izan zuen jazoera hark, eta, gerora, *Hamahiru Arrosak* izenez deitu zieten fusilatutako emakume haiei. Ordutik, hamaika egitasmo eta proiektu egin dituzte gertakaria oroitzeko. Donostian, esaterako, *Hamahiru arrosak* izeneko erakusketa bat jarri dute, Arteztu arte galerian. Veronica Domingo (Bilbo, 1989) artistak eginiko lanak biltzen ditu erakusketak, eta otsailaren 18ra bitartean egongo da ikusgai.

«Istorio horren harira hainbat lan egin dira, hala kantuak nola filmak eta liburuak, baina nik ez nuen aldarrikapen plastikorik edo bisualik aurkitzen. Istorio hori irudietara iraultzea erabaki nuen», adierazi du Domingok. Erakusketaren izena *Hamahiru arrosak* den arren, ez da arrosarik ageri galeriaren hormetan. Hain justu, beste ikuspegi bat landu nahi izan duelako. Arrosetatik urrun. «Erakusketaren ideia edo helburua hamahiru arrosa horiek zerraldoen estalki gisa irudikatzea izan da, eta irudi horiek grabatuan eginda daude». Sortzaileak nabarmendu duenez, zerraldo estalkien baliabideak beldurraren ideia biltzen du. Erantsi duenez, fusilatu ondoren hobi komunetan jartzen zituzten hilotz guztiak; zenbait kasutan, ordea, egurrezko hilkutxetan: «Hamahiru emakume horien kasuan, hilkutxa txikitan sartu zituzten».

Komunikatzea helburu

Erakusketan bildutako piezak 2018. urtean zehar eginda daude, eta, artistaren arabera, «gertaera lazarri horren oroigarri dira». Hamahiru arrosa horiek modu bateratu batean irudikatzea izan da Domingoren asmoa, baina, aldi berean, «independenteki» gorpuztu nahi izan ditu, «inongo menpekotasunik gabe». Kontatu duenez, mokurito teknika erabili du: «Egurraren gainean eginiko litografia da». Bestalde, silografia ere jorratu duela esplikatu du, eta horren bitartez keinuak lantzea eta irudi figuratibo anitz nahastea lortu duela, «eta atmosfera apur bat abstraktuagoa lortu».

Erakusketako pieza guztiak zuri-beltzean eginik daude, eta egurra dute mihise. Domingoren aburuz, material umila eta xaloa da egurra, eta «transmititu nahi den ideiarda eta garai horretara gerturatzeko balio du». Trazuari dagokionez, «oso oldarkorra» iruditzen zaiola nabarmendu du, baina baita «erakargarria ere». Detaile horiekin eta matrizearen zerraldo itxurarekin, «ikusleari gogoeta egiteko bide ematea» du helburu: «Komunikatzea». Iker Antia galeristaren arabera, beharrezkoa da memoria ariketa hori egitea: «Gertaera lazarria da, baina ez da inolaz ere ahaztu behar». Bat dator Domingo ere: «Istorio honetan kontatzen dena ez da gaur egun gertatzen gure inguruan, baina herrialde askotan eguneroko kontuak dira. Kontzientziaztea nahiko nuke, erakusketa ikustera etortzen direnek jakin dezaten hau gertatu izan dela eta gertatzen ari dela».